

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**8263** 10/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 18koa, «Filomena» ekaitz gogorrek eragindako kalteak arintzeko presako neurriak hartzen dituen.

I

«Filomena» ekaitz gogorraren ondorioz elurte handiak aurreikusi zirenez, Asturiasko Printzerriko, Gaztela eta Leongo, Gaztela-Mantxako, Andaluziako, Aragoiko, Madrilgo, Errioxako eta Nafarroako autonomia-erkidegoetako lurralde-plan edo plan bereziak aktibatu ziren larrialdi-fase gorenean. Beste autonomia-erkidego batzuetan, beheragoko faseren batean aktibatu ziren planak.

2021eko urtarrilaren 5ean, Estatuko Meteorologia Agentziak igorritako abisuak ikusita, Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiak dei egin zion Estatuko Errepideen Sarean kontrako fenomeno meteorologikoen aurrean Jarduketak Koordinatzeko Protokoloko Arriskuak Baloratzeko Unitateari, eta, halaber, autonomia-erkidegoetan eta Ceuta eta Melillako hirietan babes zibilaren arloan eskumena duten organoak ohartarazi zituen, baita Gobernuaren Ordezkaritzak ere.

2021eko urtarrilaren 7an, Babes Zibileko Larrialdien Estatuko Plan Orokorren 2. fasea aktibatu zen. Adierazpen horrekin bat egin zuten hainbat autonomia-erkidegok, zeinek beren planak gehieneko alerta-mailan aktibatu baitzituzten, «Filomena» ekaitz gogorri lotutako eragin meteorologikoen aurrean. Fase horretan, Babes Zibileko Larrialdien Estatuko Plan Orokorra urtarrilaren 7ko 10:50etik urtarrilaren 18ko 13:00etara egon zen aktibatuta; fase hori izan zen, hain zuzen, hondamendi horren denbora-eremuaren muga, zeina larrialdi-planak erabat desaktibatu arte zabaldu baitzen autonomia-erkidegoren batean. Beste autonomia-erkidego batzuetan, berriz, beheragoko faseren batean aktibatu ziren planak, hala nola, Kanarietako, Kantabriako, Kataluniako, Murtzia Eskualdeko eta Valentziako autonomia-erkidegoetan.

Plan horiek martxan egon diren bitartean, kalte pertsonalak izan dira, eta azpiegitura eta ondasun publiko eta pribatuak kalteku dira, bai eta laboreak eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak, industrialdeak eta beste ekoizpen-instalazio batzuk ere.

Larrialdiaren handitasunak, biztanleen bizi-baldintzen nahasmendu larriari diruz laguntzeko beharrezko neurriek, funtsezko zerbitzu publiko guztiak lehengoratu beharrak eta, azken batean, kalte-tutako lekuetan egoera bere onera ekarri beharrak, arrazoi horiek guztiek justifikatzen dute Estatuaren Administrazio Orokorrek esku hartzea, lurraldeen arteko elkartasunaren printzipioari eutsita, eta modu subsidiarioan, lurralde-administrazioek beren eskumenak erabiliz egin behar dituzten jarduketaren osagarri gisa.

Ildo horretan, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren uztailaren 9ko 17/2015 Legearen 20. artikulua aurreikusten duenez, larrialdiaren handitasuna dela-eta Estatuaren Administrazio Orokorren esku-hartzea eskatzen denean eremua lehengoratzeko, lege horren II. tituluko V. kapituluaren jasotako neurriak aplikatuko dira; edonola ere, 23. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera deklaratu beharko da larrialdiaren handitasuna.

Deklarazio hori eginez gero, lege-testu beraren 24. artikulua zerrendan ageri diren neurriak hartu ahal izango dira, Ministro Kontseiluak onartzen dituen baldintzak beteta.

Horren arabera, bat etorritik uztailaren 9ko 17/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutakoarekin, Ministro Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 19an egindako bileran erabaki zuen babes zibileko larrialdi batek larriki kalte-tutako eremu izendatzea Asturiasko Printzerriko, Gaztela eta Leongo, Gaztela-Mantxako, Andaluziako, Aragoiko, Madrilgo, Errioxako eta Nafarroako autonomia-erkidegoak, «Filomena» 1/2021 gertaeraren ondorioz.

Errege lege-dekretu honen xedea da kalte-tutako guneak bere onera itzularaztea eta, egoerek eskatzen duten azkartasunarekin, uztailaren 9ko 17/2015 Legearen 24.2 artikulua jasotako neurriak hartzea, hots, onura fiskal jakin batzuk, eta lan-arloko eta Gizarte

Segurantzaren arloko neurriak (horietako batzuk aplikatu ahal izateko, lege mailako araua onartu beharra dago). Eta etxebizitzetan, establezimenduetan eta ustiattegietan, azpiegituretan eta ekipamenduetan, jabari publiko hidraulikoetan edo itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoetan fenomeno atmosferiko horiek eragindako kalteak hein batean arintzeko.

## II

Proposatzen diren neurriek, haien izaera eta xedea ikusirik, bete egiten dituzte errege lege-dekretuak onartu ahal izateko Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua eskatzen dituen aparteko eta presako premiaren baldintzak.

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua horren arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako premia dagoenetan», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarrizko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Lehenengo alderdiari dagokionez, lege-mailako tresna arauemaile honen erabilera beste inguruabar batzuek baldintzatzen dute; izan ere, «aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, berehalako araugintza-ekintza behar da, ohiko bidetik edo legeak parlamentuan izapidetzeko presazko prozeduratik behar izaten dena baino epe laburragoan» (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 Epaia, otsailaren 4koa).

Konstituzio Auzitegiak deklaratu duenez, aparteko eta presako premia-egoera hori «elementu ugaritatik» ondoriozta daiteke, besteak beste, «arauaren zioen azalpenean ageri direnetatik» (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 Epaia, otsailaren 4koa). Bestalde, «zuzeneko edo kongruentziatzeko harremana» egon behar da errege lege-dekretua erabiltzeko aukera ematen duen aparteko eta presako premia-egoeraren eta bertan jasotako neurrien artean. Beraz, aparteko eta presako premiaren aurrekontua izateko, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 61/2018 Epaia (4. oinarri juridikoa) eskatzen du, batetik, «Gobernuak tresna hori onartzeko aztertu dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», hau da, presako egoera azaltzea, eta, bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean».

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta hau bada presako legegintza justifikatzen duen helburua, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz exijitu izan duen bezala (6/1983 Epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 Epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 Epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 Epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria): egoera jakin bati laguntza ematea, Gobernuaren helburuen barruan, noiz eta, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, berehalako araugintza-ekintza eskatzen duenean, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan. Eta are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako premia judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mende dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko Epaia), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarriz arreta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek modu sakon eta arrazoituan justifikatzen dute arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Esan behar da, gainera, errege lege-dekretu honek ez duela eraginik izango Estatuaren oinarrizko erakundeen antolamenduan eta Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ezta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Alde horretatik, eta Espainiako Konstituzioaren I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebehar eta askatasunak ukitzeko debekuari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren I. doktrina bateratuak, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 21eko 139/2016 Epaia (6. oinarri juridikoa) laburbiltzen duenak, honako hau adierazten du: «1.a) (...) auzitegi honek baztertu egin du muga horren interpretazio zabalago bat, interpretazio horrek lege-dekretuaren figura hustea ekarriko bailuke, eta hura baliorik gabe utziko bailuke Konstituzioaren I. tituluan jasotako gaiei buruzko edozein alderdi eragin handiagoarekin edo txikiagoarekin arautzeko; 2.a) Klausula murriztailea lege-dekretuaren figura ezerezera ez murrizteko moduan ulertu behar da; izan ere, Konstituzioak debekatzen duena eskubide, betebehar eta askatasun horien araubide orokor bat arautzea edo eskubide horietako batzuen edukiaren edo funtsezko elementuen aurka egitea da (Konstituzio Auzitegiaren 111/1983 Epaia, abenduaren 2koa, geroagoko beste batzuek berretsia, 8. oinarri juridikoa); 3.a) Auzitegiak ez du soilik aztertu behar lege-erreserbaren printzipioa nola adierazten den gai jakin batean; aitzitik, lege-dekretuak Espainiako Konstituzioaren I. tituluan arautzen den eskubide, betebehar edo askatasunen bat «ukitu» duen aztertu behar du, eta, horretarako, kasu bakoitzean ukitutako eskubide, betebehar edo askatasun horren konstituzio-konfigurazioa hartu beharko du kontuan, bai eta konstituzio-testuan duen kokapen sistematikoa eta kasuan kasuko arauketa zehatzaren izaera eta irismena ere (...).».

### III

Errege lege-dekretu honetan, gainera, kontuan hartu dira premiaren, efikaziaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak, hala agintzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua.

Ondorio horietarako, agerian geratzen da premia- eta efikazia-printzipioak betetzen direla; izan ere, ezartzen diren neurrien oinarrian interes orokorra dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik azkarrena. Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baino ez baititu ezartzen. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, eta koherentea da gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, arau honek herritarrei ahalik eta administrazio-zama txikienak eragiteko ahalegina egin da errege lege-dekretu honetan.

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikulua 7., 13., 14., 17., 23. eta 29. arauetan xedatutakoaren babespean ematen da. Arau horiek Estuari esleitzen dizkiote, hurrenez hurren, «Lan-legeriari buruzko eskumenak, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek betearaztea», «Ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa», «Ogasun orokorra eta Estatuaren Zorra», «Gizarte Segurantzaren oinarrizko legeria eta erregimen ekonomikoa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek beren zerbitzuak gauzatu ahal izatea», «Ingurumena babesteari buruzko oinarrizko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen ahalmenak» eta «Segurtasun publikoa».

Horrenbestez, Konstituzioaren 86. artikuluan jasotako baimena erabiliz, Barne ministroak, Defentsako ministroak, Ogasuneko ministroak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroak, Industria, Merkataritza eta Turismoko ministroak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroak, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko

ministroak eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak hala eztabaidatuta 2021eko maiatzaren 18ko bileran,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Xedea.

1. Errege lege-dekretu honen xedea da Ministro Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 19ko Erabakian jasotako neurrien neurri osagarriak hartzea. Erabaki horren bidez, zenbait autonomia-erkidego babes zibileko larrialdi batek larri kaltetutako eremu deklaratzeko, «Filomena» 1/2021 gertaeraren ondorioz, eta deklarazio hori eta neurri horien aplikazioa Kanarietako, Kantabriako, Kataluniako, Murtzia Eskualdeko eta Valentziako autonomia-erkidegoei zabaltzen zaie.

2. Ministro Kontseiluaren erabakiaren bidez, gaiaren arabera eskumena duten ministroek proposatuta, erabaki ahal izango da, eragindako eremuak mugatuta, errege lege-dekretu honetan aurreikusitako beharrezko neurriak aplikatzea euri-jasek, elurrak, txingorak, harriteak, haizeak, uholdeek, ibaien eta uharren gainezkaldiek, kostaldeko fenomenoek, basoetako suteek edo 2020ko apirilaren 1etik 2021eko ekainaren 30a arte gertatutako beste hondamendi batzuek eragindakoei.

2. artikulua. Kalte pertsonalak, etxebizitza eta ondasunetan izandako kalte materialak, eta industriako, merkataritzako, itsas eta arrantzako, turismoko eta beste zerbitzu batzuetako establezimenduetan izandakoak arintzeko laguntzak, eta pertsona fisiko zein juridikoek egindako prestazio pertsonalen edo ondasun-prestazioen ziozkoak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako gertakariak zuzenean eragindako heriotzen eta ezintasunen kasuetan, martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako laguntzak emango dira, zeinen bidez ezartzen baita larrialdi- edo hondamendi-egoeren ondoriozko premiei erantzuteko dirulaguntzak arautu eta dirulaguntza horiek emateko prozedura.

2. Tresneria suntsitzea edo kaltetzea eta etxebizitzak kaltetzea laguntzak jasotzeko arrazoi izango dira, martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Ezbeharrak kaltetutako higiezinaren titulartasuna egiaztatzeko, titulartasun hori frogatzen duen dokumentu oro onartuko da egiaztagiria gisa; esate baterako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiria edo pareko beste batzuk.

3. Industriako, merkataritzako, itsas eta arrantzako, turismoko eta beste zerbitzu batzuetako establezimenduetan kalteak izaten direnean, Aparteko Arriskuetaarako Aseguruaren Erregelamenduaren (otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuaren bidez onartua) 9. artikulua jasotako frankizia aplikatuta, interesdunak Aseguruaren Konpentsazio Partzueratik kalte-ordaina jaso badu, ezbeharrak eragindako kalteen zenbateko ordaingarriaren % 7 arteko dirulaguntza eman ahal izango da, 9.224 euroko zenbatekoa arte, hala xedatzen baitu martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuaren 28. artikulua; aitzitik, dirulaguntza honen eta aseguruaren kontzeptuagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren edo beste dirulaguntza edo laguntza publiko edo pribatu ororen baturak ezin izango du gertatutako kaltearen balioa inolaz ere gainditu. Interesdunak, halakoetan, aseguru-entitateak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, non jasoko baita aseguru-entitateak ez duela ordaindu Aseguruaren Konpentsazio Partzuerako aplikatutako legezko frankiziari dagokion zenbatekoa edo horren zati bat.

4. Laguntza horiek emateko eskabideak Gobernuaren ordezkarietaz izapidetu eta ebatziko dituzte eragindako probintzia bakarreko autonomia-erkidegoetan, eta gainerako kasuetan, aldiz, Gobernuaren ordezkariordetzek. Eskabideok bi hilabeteko epean aurkeztuko dira, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

5. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, jasandako kalte pertsonalengatik edo pertsona fisiko zein juridikoek egindako prestazio pertsonalengatik edo ondasun-prestazioengatik eskatzen direnean laguntzak, zeinak martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuan arautzen baitira.

6. Artikulu honetan ezarritakoa betez ematen diren laguntzak 16.01.134M «Ezbeharrek, hondamendiek edo premia nabarmeneko beste batzuek eragindako era guztietako beharizanei erantzuteko» aurrekontu-aplikazioaren 471, 472, 482, 771 eta 782 kontzeptuen kredituen kargura finantzatuko dira, zabalgarritzat jotzen baitira kreditu horiek indarrean dagoen Barne Ministerioaren aurrekontuan.

3. artikulua. Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioetan izandako kalteetarako laguntzak.

1. Artikulu honetan aurreikusitako laguntzak, 1. artikuluan adierazitako aplikazio-eremuan dauden eta, Europar Batasunaren irizpideen arabera, produkzioaren % 30etik gorako galerak izan dituzten nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategietako titularrentzat izango dira, baldin eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenen gaineko kalteak, nekazaritzako aseguru konbinatuen sistemak babestutako ekoizpen horietarako poliza indarrean izanik, sistema horren bidez bermatuta ez badaude. Era berean, ezbeharra gertatu den egunean aseguruaren berme-aldia hasi ez bada eman ahal izango dira laguntza horiek, betiere, aurreko kanpainan ildo bererako asegurua kontratatu bada. Abeltzaintza-ustiategien kasuan, ondore horietarako ez dira aintzat hartuko ustiategien hilda dauden animaliak handik ateratzeko eta suntsitzeko kontratatu diren aseguruaren polizak.

2. Nekazaritza-produkzioetan izandako kalteetarako laguntzak Batzordearen 2014ko ekainaren 25eko 702/2014/EB Erregelamenduan xedatutakoarekin bat emango dira. Erregelamendu horrek laguntzen hainbat kategoria deklaritzen ditu nekazaritza- eta baso-sektoreetarako eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz barne-merkatuarekin bateragarri diren nekazaritza-eremuetarako.

3. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak ezarriko du, autonomia-erkidegoekin koordinatuta, artikulu honetan aurreikusitako laguntzetarako eta laguntzen gehieneko zenbatekorako prozedura.

4. Laguntza horiek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren aurrekontuan horretarako jartzen den kredituaren kargura emango dira, hargatik eragotzi gabe lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa, baldin eta kreditu nahikorik ez badago.

4. artikulua. Onura fiskalak.

1. Ez dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2020ko ekitaldiko kuotak ordaindu behar izango, 2020an izandako ezbeharrei dagokienez, ez eta 2021ekoak ere, 2021ean izandako ezbeharrei dagokienez, 1. artikuluan jasotakoaren arabera; eta hori, errege lege-dekretu honen 1. artikuluan aipatu ditugun ezbeharren eraginez zuzenean kaltetu diren etxebizitzaren, industria-, turismo-, merkataritza-, itsas eta arrantza-establezimenduen, establezimendu profesionalen, nekazaritza- eta baso-ustiategien eta lantoki eta antzekoen kasuan, baldin eta egiaztatzen bada bertan kokatutako pertsonak eta ondasunak guztiz edo zati batean beste leku batean kokatu behar izan direla harik eta jasandako kalteak konpondu arte, edo nekazaritza- zein abeltzaintza-produkzioetan galerak izan badira eta hondamendi horiek ezin badira aseguru publiko edo pribatueta ezein formularen bitartez babestu.

2. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren 2020ko ekitaldian murrizketa bat ezartzen zaie, 2020an izandako ezbeharrei dagokienez, eta 2021eko ekitaldian, 2021ean izandako ezbeharrei dagokienez, 1. artikuluan jasotakoaren arabera, industriei (era guztietakoei), merkataritza-establezimenduei, itsaso eta arrantzakoei, turismo-establezimenduei eta establezimendu profesionalei, baldin eta ezbeharren eraginez zuzenean kaltetu badira haiei atxikitako negozio-lokalak edo ondasunak, eta, betiere, jarduera beste leku batean kokatu behar izan bada edo jarduera aldi baterako ixtea eragin duten kalteak izan badira. Murrizketa hori proportzionala izango da, kontuan hartuko baita zenbat denbora igaro den jarduera eten behar izan zen egunetik berriz ere normaltasunez hasi den arte, dela lokal beretan dela beste lokal batzuetan, hargatik eragotzi gabe aintzat hartzea kalteen

larritasunak eraginda jarduera utzi behar izana; azken kasu horretan, murrizketa 2019ko abenduaren 31tik aurrera aplikatuko da, ezbeharra 2020an gertatu bada, edo 2020ko abenduaren 31tik aurrera, ezbeharra 2021ean gertatu bada.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako zergetan egingo diren salbuespen eta murrizketetan, tributu horien gainean legez onartutako errekarguenak ere sartuko dira.

4. Aurreko apartatuetan ezarritako onurak lortzeko eskubidea duten zergadunek, baldin eta ordaindu badituzte aipatutako ekitaldi fiskaletako ordainagiriak, ordaindutako diru kopuruak itzultzeko eskatu ahal izango dute.

5. Urriaren 2ko 16/1979 Legeak ezarritako Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren tasetatik salbuetsita egongo dira ezbeharrek eragindako kalteen ondorioz eskatutako ibilgailu-bajak izapidetzea, eta arrazoi horiengatik suntsitu edo galdutako zirkulazio-baimenen edo gidabaimenen kopiak egitea, baldin eta ibilgailuaren titularrak egiaztatzen badu kaltea gertatu zen unean bazuela ibilgailuaren erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruak.

6. Artikulu honetako goiko apartatuetan xedatutakoa dela-eta, salbuespen eta murrizketaren bat badago udalen, uharte-kontseiluen, uharte-kabildoen, probintzia-diputazioen eta autonomia-erkidegoen tokiko tributuen bidezko diru-sarreretan, murrizketa hori Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargura konpentsatuko da, bat etorritik Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 9. artikuluan ezarritakoarekin (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu hori).

7. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira 2. artikuluan aipatutako kalte pertsonaletarako ezohiko laguntzak.

5. artikulua. Lan-arloko eta Gizarte Segurantzaren arloko neurriak.

1. Uztailaren 9ko 17/2015 Legearen 24.2.b) artikuluan eta Ministro Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 19ko Erabakiaren hamargarren apartatuan xedatutakoaren arabera arautuko dira «Filomena» ekaitz gogorrak zuzenean eragindako kalteengatik edo jardueragalerengatik aplikatuko diren lan-arloko neurriak, 1.1 artikuluan aipatzen den lurralde-eremuan.

2. Jarduera uzteagatiko prestazioak –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren V. tituluaren arautuak– jasotzen dituzten langile autonomoei, errege lege-dekretu honen aplikazio-eremuan sartzen diren gertaeren berehalako kausa badakarte, prestazioa jasotzeko ezarritako gehienezko aldiak kontsumitzeari dagokionez, ez zaizkie kontatuko prestazioaren lehenengo lau hilabeteak.

Jarduera uzteagatiko prestazioa eskuratu ahal izateko, betetzat joko da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 338. artikuluan aurreikusitako hamabi hilabeteko kotizazio-aldi jarraitua eta jarduera uztearen legezko egoeraren aurre-aurrekoa, errege lege-dekretu honen 1. artikuluan aipatzen diren ezbeharrek eragindako norbere konturako langileentzat.

Era berean, norbere konturako langileek, ezein dela ere sartuta dauden Gizarte Segurantzaren erregimena, Gizarte Segurantzaren kuotetan hobari edo murrizketaren bat badute (Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legean jasotakoaren arabera), eta, errege lege-dekretu honen aplikazio-eremuan aipatutako gertakarien zuzeneko eta berehalako ondorio gisa, dagokion erregimenaren baja eskatuko balute berriz ere alta eskatzean, ez dute galduko kuotaren hobari edo murrizketak jasotzeko eskubidea, eskubide hori jasotzeko geratzen den denboran.

3. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 272.2 artikuluan eta enplegua sustatzeko hainbat neurri arautzen dituen ekainaren 25eko 1445/1982 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, eragindako kalteak konpontzeko obrak egiteko, langabezia-prestazioak jasotzen dituzten langileak gizarte-lankidetzako lanetarako atxikitzeko eskatu ahal izango diote administrazio publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek enplegu-zerbitzu publiko eskudunari.

4. Uztailaren 9ko 17/2015 Legearen 24.2.b) artikuluan eta Ministro Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 19ko Erabakiaren hamargarren apartatuan xedatutakoaren arabera

aplikatuko dira salbuespenak eta moratoriak Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketan eta 1.1 artikuluan aipatzen den lurralde-eremuan «Filomena» ekaitz gogorak zuzenean eragindako kalteengatik edo jarduera-galerengatik baterako diru-bilketaren kontzeptuetan.

6. artikulua. Nekazaritza-jardueretarako murriztapen fiskal bereziak.

Azaroaren 27ko HAC/1155/2020 Aginduan garatu zen 2021erako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiborako metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua garatu. Bada, agindu horretan jasotzen diren etekin garbiko indizeen murriztapena baimendu ahalko du Ogasuneko ministroak nekazaritza-ustiategi eta -jardueretarako, salbuespenez eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren txostenak ikusi ondoren, baldin eta ustiategi eta jarduera horiek 1. artikuluan aipatzen diren ezbeharrek eragindako zuzeneko kalteak izan badituzte, betiere, eta bat etorri Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 37.4.1 artikuluan jasotzen diren aurreikuspenekin –martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori– eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 38.3 artikuluekin –abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori–.

7. artikulua. Toki-korporazioentzako laguntzen araubidea.

1. Horrelako larrialdiei aurre egiteko gastuengatik toki-korporazioek jasotzen dituzten laguntzei ez zaie aplikatuko martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezarritako zenbatekoa, eta, beraz, larrialdi-gastuen % 100era ere heldu ahal izango da laguntzen zenbatekoa.

Laguntza horien helburua ez da izango Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren eskumenekoak diren azpiegituretan konponketak edo birjarpenak egitea. Hala ere, diruz lagundu ahal izango dira artikuluko horiek xedatzen duten aplikazio-eremukoak izanik geroraezinak diren jarduketak, pertsonen bizitza eta segurtasuna eta oinarrizko zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzeko burutu direnak. Jarduketa horien artean daude, besteak beste, eragindako jendea ebakutzeari, jende horri aterpea eta jan-edanak ematea, lokatzak eta hondarrak erretiratzea, eta deskribatu diren helburuak betetzeko ezinbestekoak diren kaleak eta leku publikoak garbitzea.

Ondorio horietarako, ezin dira diruz lagundu, berriz, toki-korporazioak bere baliabideak erabiliz egiten dituen lanak, izan baliabide materialak diren, hala nola makinak edo lanabesak, nahiz izan bere langileak, hau da, hondamendia gertatu baino lehenagotik kontrataturik zeuzkan langileak. Ezingo dira inolaz ere diruz lagundu suhiltzaileak, udaltzainak, babes zibilak eta antzeko beste behargin batzuek eragindako gastuak.

2. Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoetan Gobernuaren ordezkarietzek eta gainerako kasuetan Gobernuaren ordezkariordetzek izapidetuko eta ebatziko dituzte laguntza horiek emateko eskabideak, eta errege lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera bi hilabeteko epean aurkeztuko dira.

3. Artikulu honetan ezarritakoa betez ematen diren laguntzak 16.01.134M «Ezbeharrek, hondamendiek edo premia nabarmeneko beste batzuek eragindako era guztietako beharrezan erantzuteko» aurrekontu-aplikazioaren 461. eta 761. kontzeptuen kredituen kargura finantzatuko dira, zabalgarritzat jotzen baitira kreditu horiek indarrean dagoen Barne Ministerioaren aurrekontuan.

8. artikulua. Toki-erakundeei laguntza emateko erregimena, ezbeharra izan duen ingurua lehengoratzeko.

1. Udalek, probintzia-diputazioek, uharte-kontseiluek eta uharte-kabildoez, eskualdeek, mankomunitateek eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek exekutatu dituzten eta 1. artikuluan aipatzen diren ezbeharrekin zuzenean lotuta dauden proiektuei beren kostuaren ehuneko 50era bitarteko dirulaguntza eman ahalko zaie, baldin eta udal-titulartasuneko azpiegiturek, ekipamenduak edo instalazio eta zerbitzuak –Toki

Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluan jasoak– edo uharte-kontseiluen eta uharte-kabildoen, probintzia-diputazioen eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen bide-sarea konpontzeko edo leheneratzeko obren proiektuak badira. Ez dira diruz lagunduko toki-erakundeak bere baliabide propio ez pertsonifikatuak erabiliz egiten dituen lanak, berdin baliabide materialak izan, zein makinak nahiz langileak izan.

2. Dirulaguntza horiek Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurrekontuan horretarako jartzen den kredituaren kargura ordainduko dira, hargatik eragotzi gabe lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa, kreditu nahikorik ez badago.

3. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroari ahala ematen zaio dirulaguntza horiek emateko prozedura ezar dezan, bai eta horien jarraipena eta kontrola egin dezan ere.

9. artikulua. Basoa eta ingurumena leheneratzeko jarduketak.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari ahala ematen zaio bere eskumeneko gaitan kaltetu diren inguruak jarduera bereziko esparru izendatzeko eta, horren ondorioz, aipatutako sailak egin beharreko lanen premiazkotasuna deklaratzeko, honako arlo hauetan:

a) Basoaren leheneratze hidrolagikoa, higaduraren eta desertifikazioaren kontrola, bai eta lan osagarriak ere suteek bortizki kaltetutako baso-eremuetan, ondorengo euriteek izan ditzaketan ondorioak, ondorengo sute-arriskua eta basoetako izurriak izateko arriskua arintzeko.

b) Elurte gogorrek kaltetutako Natura 2000 Sareko espazioak berreskuratzea eta ingurumenaren aldetik lehengoratzea, batez ere, EBren intereseko habitatak eta EBren intereseko espezieak, endemismoak edo babes bereziko erregimenean dauden baso-espezieen zerrendan jasotako espezieak dituzten habitatak.

c) Baso biomasa eraitsia ateratzeko eta tratatzeko laguntza, hala dagokionean.

d) Baso-masetan izurriak kontrolatzeko tratamenduan laguntzea.

e) Basoak kudeatzeko behar diren azpiegiturak leheneratzea.

10. artikulua. Jarduketak jabari publiko hidraulikoan.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari ahala ematen zaio jabari publiko hidraulikoa leheneratzeko jarduketa bereziko esparru deklaratzeko dagokion arro hidrografikoan kalteturik suertatu diren lekuak, eta sail horrek egin behar dituen obren premiazkotasuna deklaratzeko, honako arlo hauetan:

a) Suteen ondoriozko landare-hondakinek eragindako tapoiak kentzea.

b) Ubideetara iritsi diren edo irits daitezkeen garraiaketak, sedimentuak eta hondakinak erretiratzea, ubideen hustuketa gaitasuna murriztu dezaketelako.

c) Erosio-prozesuak jasan dituzten bazterrak konpontzea, bai eta defentsak jartzea ere errosioak izateko arrisku gehien duten gunetan.

11. artikulua. Jarduketak itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari ahalmena ematen zaio itsaso eta lehorraren arteko jabari publiko leheneratzeko jarduketa bereziko esparru izendatzeko dagokion itsasertzean kalteturik suertatu diren lekuak, eta sail horrek egin behar dituen obren premiazkotasuna deklaratzeko, honako arlo hauetan:

a) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren lehengoratzea, eta haren osotasuna eta mantentze egokia bermatzeko gainerako obrak, bai eta itsasertzearen iraunkortasuna bermatzeko eta bihar-etziko ekaitz gogor eta galernen eragina leuntzeko lan osagarriak ere.

b) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publiko osatzen duten elementuak babestea eta mantentzea, eta, bereziki, hondartzak eta hareatzak, duna-sistemak eta itsasertzeko



hezeguneak era jasangarrian egokitzea, lehengoratzeta eta birsortzea, baita itsasertzean azterlanak, proiektuak eta obrak egitea, ikuskatzea eta kontrolatzea ere.

c) Itsasertzean kaltetuta geratu diren egiturak konpontzea eta leheneratzea; esate baterako, itsasertzeko pasealekuak, jabari publikorako sarbideak edo hormak.

12. artikulua. Gainerako azpiegitura publikoetako kalteak.

Arlo horretan eskumena duten ministerio-sailtako titularrei ahala ematen zaie kalteturik suertatu den ingurua jarduketa bereziko esparru deklaratzeko, sail horiek, haien erakunde autonomoek eta haiei lotutako edo haien menpeko erakunde publikoek egin beharreko leheneratze-jarduketak egin ditzaten. Aipatutako ondorioetarako, premiazkotzat jo ahal izango dira sail horiek beren eskumenen esparruan egindako lanak, Estatuaren titulartasuneko azpiegituretan izandako kalteak konpontzeko, bat etorritik Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan xedatutakoarekin (zeinaren bitartez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora).

13. artikulua. Abalen finantzaketari buruzko ekintzak.

1. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, bere eskumen-esparruaren barruan, finantzaketa-lerroak jarri ahal izango ditu operadore ekonomiko horien eskura, baldin eta jardueraren ohiko baldintzak aldatzearen ondoriozko egoerek operadore ekonomiko horien jarduerari eragin badiete, eta finantzaketa-lerro horietan diruz lagunduko da, zuzeneko emakidako erregimenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikulua araberak, Nekazaritzako Kauzioaren Estatu Sozietate Anonimoaren (SAECA) abalen kostua, zeinak beharrezkoak baitira sektorearen bideragarritasuna eta funtzionamendu arrunta sendotzeko xedea duten maileguak eskuratzeko.

2. Laguntza horiek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren aurrekontuan horretarako jartzen den kredituaren kargura emango dira, hargatik eragotzi gabe lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa, baldin eta kreditu nahikorik ez badago.

14. artikulua. Kontratazio-araubidea.

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluko eskakizunak kontuan hartuta, eta kontratazio-organoaren alde aurreko erabakiaren bidez, honako hauek hartu ahal izango dira larrialdietako obra, zerbitzu edo horniduratzat: azpiegiturak, ekipamenduak edo zerbitzuak konpondu edo mantentzeko kontratuak; kaltetutako ondasunak leheneratzeko lanen kontratuak; eta kalteak baloratzeko lanen kontratuak, edozein dela ere euren zenbatekoa. Era berean, kontuan hartu beharko da Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta hogeita hamaseigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa, jarduketan hasierak premia izapidetzeko erregimenaren komunikazioari buruzkoa.

2. Presazkotzat joko da artikulua honetan aipatutako lanen ondoriozko desjabetzeek eragindako ondasunen okupazioa, Jabetza Nahitaez Kentzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

3. Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236.2 artikuluan sartuta ez dauden obren kontratazio-espeditenteak izapidetzeko, ez da bete beharko lurak erabilgarri izateko alde aurreko baldintza, hargatik eragotzi gabe lursailen benetako okupazioa egin aurretik okupazio-akta formalizatu beharra.

15. artikulua. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa.

1. Kaltetutako probintzia bakarreko autonomia-erkidegoetako Gobernuaren ordezkariak eta gainerako kasuetan Gobernuaren ordezkariordeak, Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiak alde aurretik txostena eman eta gero, pertsonalak

ez diren kalteen ebaluazio zuzenagoa egiteko, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari beharrezkoak diren zenbatespenak egin ditzan eskatu ahal izango diote, bat etorritz errege lege-dekretu honen 2. artikularekin, baldin eta titulartasun publikoko ondasunei eragiten ez badiete, betiere.

2. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak eskubidea izango du Estatuko Administrazio Orokorrak peritazio-lanak ordain diezazkion, partzuergo horrek bere aseguruaren peritu tasatzaileentzat onartuta dituen ordainsari profesionalen baremoaren arabera.

3. Laguntzak errazago izapidetzeko eta kalteak errazago ebaluatzeko, administrazio eskudunak eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak elkarri helarazi ahal izango dizkiote emandako laguntzen eta aitortutako kalte-ordainen onuradunei buruzko datuak, laguntza eta kalte-ordainen zenbatekoei buruzkoak eta ukitutako ondasunei buruzkoak. Espainiako lurraldean jarduten duten aseguru-entitateek Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari nahitaez eman beharko diote partzuergo horrek eskatzen dien informazioa, goian xedatutakoa bete ahal izateko.

Emango diren laguntzen onuradunei, zenbatekoei eta ukitutako ondasunei buruzko datuak trukatu beharko dituzte administrazio eskudunak eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, laguntzak izapidetu eta kalteak baloratu ahal izateko. Datu-truke hori Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiaren eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren bitartez egingo da, biek elkarrekin ezartzen duten prozedura erabiliz.

Lehenengo xedapen gehigarria. Aurrekontu-kredituak.

Probintzia-diputazioen, kontseiluen, uharteetako kabildeen eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen udal-azpiegituretako eta bide-sareko kalteei buruzko neurriak, jabari publiko hidraulikoan eta itsas-lehorrean jarduketak, basoa eta ingurumena leheneratzeko jarduketak, eta gainerako azpiegitura publikoetan eragindako kalteak Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorritz finantzatu dira, eta ministerio-sailetan eta erakunde publikoetan eta haiei lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko entitateetan dauden aurrekontu-baliabideen kargura ordainduko.

Ministerio-sailetan aurrekontu-eskasia egiaztatzen den kasuetan, Aurrekontu Esleipenerako Kontingentzia Funtzaren kargura finantzatu ahal izango dira errege lege-dekretu honetan jasotako jarduerak. Edonola ere, azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 50. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, Kontingentzia Funtzaren aplikazioa Ministro Kontseiluaren erabakiaren bidez onartuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. Kaltetuei laguntzeko neurrien jarraipena egiteko ministerioarteko batzordea.

1. Bat etorritz Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 20. artikuluan ezarritakoarekin, ministerioarteko batzorde bat sortzen da errege lege-dekretu honetan ezarritako laguntza neurriak aplikatzeko. Batzorde hori Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiari atxikia dago, eta Barne ministroak, Defentsako ministroak, Ogasuneko ministroak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroak, Industria, Merkataritza eta Turismo ministroak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroak, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroak. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak eta Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroak osatuko dute, bai eta kaltetutako autonomia-erkidegoetako gobernuaren ordezkariak eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren ordezkari batek ere.

2. Ministerioarteko batzordeko presidentea Babes Zibileko eta Larrialdietako zuzendari nagusia izango da, eta kide anitzeko organoko idazkari gisa jardungo du, hitzarekin baina botorik gabe, zuzendaritza nagusi horretako funtzionario batek.

3. Errege lege-dekretu honetan ezarritako laguntza-neurrien jarraipena aurreko zenbakian aipatutako batzordeak egingo du, kaltetutako autonomia-erkidegoetako

agintariekin koordinatuta, Gobernuaren Ordezkaritzen bidez. 2021eko azaroaren 1a baino lehenago, ministerioarteko batzordeak txosten bat egingo du errege lege-dekretu hau gauzatzeko egin diren jardueri buruz.

4. Haren sorrera eta funtzionamendua baliabide pertsonalekin, teknikariek eta dauden aurrekontuekin egingo da, horregatik gastu publikoa handitu gabe.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

Ministro Kontseiluaren erabaki bidez xedatuko da errege lege-dekretu honetan jasotako azpiegitura, ekipamendu edo instalazioak konpondu eta birgaitzeko zein lan egongo den ingurumen-inpaktuaren ebaluaziotik salbuetsita, bai eta errege lege-dekretuaren 10. eta 11. artikuluetan ezarritako jabari publikoko jarduerak ere; hau da, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 8. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatueta xedatutakoa betez, zein lan salbuetsiko den izapide horretatik, nahiz eta, zinez, aipatutako legearen 7. artikulua araberera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa aurkeztera behartuta egon.

Laugarren xedapen gehigarria. Eskabideak aurkeztea.

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik aurkeztutako laguntza-eskabideak 2. artikuluko 4. eta 5. apartatueta aurreikusitako epeetan aurkeztu ahal izango dira berriro, baldin eta laguntza horiek emateko baldintza eta eskakizunetako bat edo beste aldatu bada.

Bosgarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak.

Emango diren laguntzen onuradunei, zenbatekoei eta ukitutako ondasunei buruzko datuak trukatu beharko dituzte administrazio eskudunak eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, laguntzak izapidetu eta kalteak baloratu ahal izateko. Datu-truke hori Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiaren eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren bitartez egingo da, biek elkarrekin ezartzen duten prozedura erabiliz.

Seigarren xedapen gehigarria. Laguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean erregistratzea.

Organo eskudunek Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean erregistratu beharko dituzte errege lege-dekretu honen babesean emandako laguntzak, azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituen martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren araberera.

Azken xedapenetako lehenengoa. Eskumen-titulua.

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikulua 7., 13., 14., 17., 23. eta 29. arauetan xedatutakoaren babespean ematen da. Arau horiek Estatuari esleitzen dizkiote, hurrenez hurren, «Lan-legeriari buruzko eskumenak, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek betearaztea», «Ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa», «Ogasun orokorra eta Estatuaren Zorra», «Gizarte Segurantzaren oinarritzko legeria eta erregimen ekonomikoa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek beren zerbitzuak gauzatu ahal izatea», «Ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen ahalmenak» eta «Segurtasun publikoa».

Azken xedapenetako bigarrena. Garatzeko ahalmenak.

Gobernuak eta ministerio-sailtako titularrek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, behar diren xedapenak emango dituzte, errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betetzeko.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea.

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madrilen, 2021eko maiatzaren 18an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN.